

Webgune honek cookie-ak erabiltzen ditu zure nabigazioa errazteko, publizitatea erakusteko eta analisi estatistikoak egiteko. Nabigatzen jarraitzen baduzu, hauen erabilera onartzen duzula ulertuko dugu. Informa

gehiago nahi baduzu, kontsultatu [Cookie Politika](#) [Onartu](#)

2017-01-24

Nork Goierriko Hitz - Urt 21, 2017

EMMA GARCIA TELEBISTA AURKEZLE ORDIZIARRAK GOIERRIKO TXOTX DENBORALDIA IREKI DU



SEGURAN GREZIAKO ERREFUXIATUENTZAKO ARROPA BILTZEN ARI DIRA

Emma Garcia telebista aurkezle ordiziarrak Goiturreko kide diren zazpi sagardotegien txotx denboraldia ireki du gaur, Legorretako Aulia sagardotegian. Ekitaldian Niko Osinalde Goiturreko zuzendariak eta zazpi sagardotegietako ordezkariak parte hartu dute. Aurten 500.000 litro ekoiztu dituzte, iaz bezala gutxi gorabehera.

Goiturreko kide diren zazpi sagardotegi hauek ekoizleak dira: Altzagako Olagi, Ataungo Urbitarte, Legorretako Aulia, Olaberriako Etxe Zuri, Ordiziako Tximista eta Zeraingo Oiharte eta Oatza. Aipatzekoa da Oihartek apardun sagardoa ere egiten duela eta Urbitartek ondua. Olagi, Tximista, Oiharte eta Oatza duela gutxi sortu den Euskal Sagardoa jatorri izendapenaren barne daude.

Osinaldek sagardoak produktu turistiko bat sortzeko balio duela gogoratu du. "Sagardoa Goierrin egun batzuk pasatzeko aitzakia bikaina da", esan du. Auliako Iñaki Begiristainek aurtengo sagardoari buruz hitz egin du. "Uda beroa eta lehorra izan denez, uza txikia baino kalitate handikoa izan da. Sagardoak txinparta handia, gorputza eta usain garbia ditu. Sagardo ona da".

Garcia oso pozik azaldu da. "Goierrikoa izateaz oso harro nago. Azken 18 urte hauetan denetik egin dut, baina hauxe falta zitzaidan: txotx denboraldia irekitzea. Aste guztian ezarriko arazoekin ibili naiz eta lankideek ez zuten ulertzen zergatik etorri behar nintzen Legorretara etxean lasai gelditu beharrean. Gaur Legorretara etortzea betebeharra, ardura, ohorea... dela esan nien. Sagardoarekin ahotsak hobera egitea espero dut".



GOIERRIKO HITZA



LOTUTAKOAK

ETIKETAK

ATALA

EGILEA



«Euskal Herrian bizi behar badugu, eusk ...

Nork [A. Vierbücher](#) - Urt 24, 2017

■ Gizartea



Puntu landua lortu du Goierri Gorrik, I ...

Nork [Goierriko Hitz](#) - Urt 23, 2017

■ Beasain



Irribarriak eta Rezustak lidertzan jarrai ...

Nork [Goierriko Hitz](#) - Urt 23, 2017

■ Arama



Garingo Mendi Lasterketa iruditan

Nork [Goierriko Hitz](#) - Urt 23, 2017

■ Beasain

UTZI EKARPEN BAT

Izena *

Email *

Website

BIDALI IRUZKINA

Goierriko Hedabideak S.L.

Oriamendi 32, 20200 - BEASAIN- Tel.: 943 16 00 56 - Faxe 943 889 612 / Iparragirre, 11 20700 - URRETXU - Tel: 943 72 34 08 - E-posta: goierri@hitza.eus



Gipuzkoako Foru Aldundia

[Cookie politika](#) | [Lege Oharra](#) | [Pribatutasun Politika](#)

WEBGUNE HONEK BAT EGITEN DU CREATIVE COMMONS ERABILERA LIZENTZIAREKIN.

